

PRENTSA OHARRA, EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN PARTAIDETZA-EHUNEKOA KAPITAL SOZIALAREN % 50-ETIK GORAKOA DUTEN SOZIETATEEN LEGEZKOTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2000-2006-KO ALDIAN ERATU ZIRENENA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, euskal sektore publikoaren partaidetza-ehunekoa kapital sozialaren % 50etik gorakoa duten sozietateen fiskalizazioa mamitu du, 2000 eta 2006 bitarteko aldiari eratu zirenen. Txostena Osokoaren kideen gehiengoak onetsi du, nahiz kideetatik hiruk desadostasunezko boto partikularra egin duten.

Lanaren mamia ondasun erosketa eta zerbitzuei, langileen kontratazioari eta ondare eragiketei ezargarria zaien legezkontasuna 2006ko ekitaldian zehar bete den aztertzea izan da. Berebat, fiskalizazio-gai izan diren sozietateak sortuz jarduera ekonomikoen aribidean ekimen publikoen komenigarritasun eta egokitasuna egiaztatzen duten espedienteak aztertu ditugu eta honenbestez, horiek sortzea justifikatzen duen arrazoia.

Hona hemen fiskalizaziogai izan diren sozietateak:

- Badia Berri, S.A.
- Biogarbiker, S.A.
- Biosasieta, S.A.
- Burtzeña Enpresa Parkea, S.A.
- Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentrua, SA
- Izenpe, S.A.
- Jaizkibia, S.A.
- Ortulur, S.A.
- Garaia Berrikuntza Polo, Koop.S
- Sestao Bai, S.A.
- Sestao Berri 2010, S.A.
- Bilboko Aireportua Sustatzeko Sozietatea, SA
- Urdulizko Industrialdea, S.A.
- Vitoria Integrated Air Services, S.A.

Legea betetzeari dagokionez, Epaitegiak txosteneko ondorioen atalean inbertsioak egin eta ondasun eta zerbitzuen erosketen espedienteetan batetik, eta langileen kontratazioen espedienteak aztertzean, bestetik, azaleratu diren akats nagusiak azaleratu ditu.

Administrazio Publikoen Kontratuen Legeak agintzen dituen eskakizunak betetzeari dagokionez azaleratu diren hutsak ia gehien bat publizitate ezari dagozkio eta HKEEK ezargarria den legeria zein sozietatek ez duten bete zehaztu du.

Aztertu diren sozietateek gauzatutako langileen kontratazioa berrikustean azaleratu diren akatsak batik bat berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak ez betetzeari dagozkionak dira eta HKEEK hemen ere zehaztu egiten du zein diren legezko arautegia bete ez duten sozietateak.

Administrazio Publikoek sozietate hauek sortzeko erabilitako arrazoi eta prozeduraren analisiari dagokionez, HKEEK adierazi du, besteak beste, sozietate bakoitzaren ezaugarri orokor eta partikularren artean, kasu gehienetan xede sozialak orokorregiak direla horiek sortzearekin eskuratu asmo den egiazko helburua balioetsi ahal izateko; honela, bada, ez da arrazoitu sozietatea sortzearekin eskuratu asmo den eraginkortasun objektibo handiagoa kudeaketan, beste kudeaketa molde batzuei aurkajarrita; erakunde nagusiek enpresa horien funtzionamendua bermatuko duten baliabideak izan behar dituzte, jokamolde komunak izateko ildoak erakutsiz, kudeaketaren gaineko jarraipena eginez eta funtzionamenduaren gardentasuna ziurtatuz, eta hori guztia eraginkortasun, errentagarritasun eta merkatuko eta lehia askeko araukiko errespetuzko eta giza-erantzukizuneko irizpideei jarraiki; eta amaitzeko, administrazio publikoek erabakitako kooperazio hitzarmenek ez dituzte modu minoritarioan partaidetzen dituzten merkataritza sozietateen aurrekontu, finantza, kontularitza eta kontrol araubidea koordinatzeko klausulak barne hartzen.

Txostenean aztergai izan diren sozietateen abenduaren 31ko urteko kontuak jaso dira eta HKEEK barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen egin ditu.

Amaitzeko, txostenari hainbat eranskin argigarri txertatu zaizkio eta desadostasunezko boto partikularra osotasunean.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas